


Euskal biztanleriaren %9,4 lekuz mugitzen da

Migrazio-saldoa berriz izan da positiboa; 2006. urtean 14.458 pertsona gehiago

Euskal biztanleriaren %9,4k bizileku aldaketaren bat egin du 2006. urtean zehar. EUSTATEN datuen arabera, mugimendu hori %70,2an Euskal Autonomia Erkidego barruan izan da, eta gainerako kasuetan erkidegotik kanporakoa. Eustaten datuen arabera, 2006. urtean Euskal AEn 14.458 gehiago izan ziren etorritakoak joandakoak baino; 2005.aren aldean %8,5eko hazkundera.

Erkidegorako migrazio-saldo positiboa duen ondoz ondoko zazpigarren urtea dugu hau. Lurraldeka, Bizkaia 7.878 pertsona gehiago izan du; kopuru absolutuetan migrazio-saldo altuena, eta aurreko urtekoaren aldean %6 gehiago. Gipuzkoak 3.340 pertsona irabazi ditu, aurreko urtean baino %16 gehiago. Arabak 3.243 lagun irabazi ditu, %7ko hazkundera

1. grafikoa.- Migrazio-saldoaren bilakaera Lurralde Historikoka



Iturria: EUSTAT

Migrazio saldo positiboa atzeritik etorritakoei esker izan da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko mugimenduak bakarrik kontuan hartuz gero, 2006. urtean aurrekoan baino 286 pertsona gutxiago etorri ziren. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko migrazio-saldoa berriz ere negatiboa da, 3.676 pertsonaren galera izan baita. Bestalde, atzerriko etorkinen migrazio-saldoa positiboa da; 18.134 pertsona, eta horrek, aurreko urtekoaren aldean, %23ko gehikuntza ekarri du.

Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira, 201.095 kasutan aldatu dira ohiko bizilekuak:

- Kopuru horretatik, 94.941 kasutan udalerrian bertan aldatu dira bizilekuak.
- Erkidego barruko mugimenduak, hau da, bai jatorria, bai helmuga Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan dituzten mugimenduak 46.318 izan dira.
- Era berean, kanpoko edo erkidegoaz kanpoko 37.147 immigrazio gertatu dira. Jatorria gure erkidegoaz kanpoko udalerri batean eta helmuga Euskal Autonomia Erkidegoan duten mugimenduak dira horiek.
- Azkenik, kanpoko edo erkidegoaz kanpoko 22.689 emigrazio gertatu dira. Jatorria gure autonomia-erkidegoko udalerri batean eta helmuga gure erkidegotik kanpora duten mugimenduak dira horiek.

1. taula.-Migrazio-mugimenduen eta -saldoen bilakaera. Euskal Autonomia Erkidegoa.

Urtea	Emigrazioak		Inmigrazioak		Migrazio-saldoa
	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988=100)	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988=100)	Guztira
1988	18.103	100	8.014	100	-10.089
1992	13.668	76	9.006	112	-4.662
1995	16.130	89	11.316	141	-4.814
1999	17.291	96	16.103	201	-1.188
2000	17.462	96	20.022	250	2.560
2001	18.696	103	25.775	322	7.079
2002	19.730	109	25.967	324	6.237
2003	22.216	123	28.467	355	6.251
2004	21.304	118	30.328	378	9.024
2005	20.672	114	33.993	424	13.321
2006	22.689	125	37.147	464	14.458

Iturria: EUSTAT

Kanpoko edo erkidegoz kanpoko mugikortasunari dagokionez, 2006. urtean **EAEko** mila biztanletik 27,9 mugitu dira (%35,7 Araban; %29,2 Bizkaian eta %22,5 Gipuzkoan); alabaina, mugikortasun hori gainerako autonomia-erkidegoetakoarekin erkatuta **txikia da**, azken hauetan mila biztanletik 47 mugitzen baitira.

EAEra bertatik jasotzen dutena baino gehiago ekartzen duten erkidegoak hauek dira: Katalunia, Aragoi, Kanariar uharteak, Murtzia eta Gaztela-Mantxa.

Euskal Autonomia Erkidegoko **emigrante gehien erakarri duten autonomia erkidegoak** ondokoak dira, eta hurrenkera honetan: Kantabria, Gaztela eta Leon, Madril eta Nafarroa. Lauren artean, gure erkidegotik irtendako bi lagunetik bat hartzen dute.

Atzerriko nazionalitatea duten immigratzaileak, 2006. urtean, 24.252 pertsona izan ziren; gure erkidegora izandako sarreren %65. 2.000.ean hasi ziren migrazio saldo positiboak; harrezkeroztik Euskal AEn asko igo dela atzerriarren immigrazioen bolumena ikusi dugu. 2006.ean atzerriko nazionalitatea duten pertsonen immigrazioa %23 hazi da. Kontuan izan behar da immigratzaile atzerriar batzuk beste autonomia-erkidego batzuetatik etorri direla. Zehazki, 2006. urtean 5.415 kasutan gertatu zen hori.

Titulu-mailari dagokionez, titulu-maila apalenetakoak immigrazioen %51,2 eta emigrazioen %50 dira; goi-mailako tituluetan, ordea, %18,9 bai emigrazioetan, bai immigrazioetan.

Emigranteen **batez besteko adina**, 34,7 urte, handiagoa da immigratzaileena (30,9) baino.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp